



Larrañako jaixak San Lorentzotan

Majo aldatu da Olakua, San Lorentzo eta Ugarkalde inguruetako itxuria azkenengo berrogeta hamar urte honeittan. Oñatiarren hirutik batek izango dau orain hor bere bizilekua. Baiña Larrañak, baserri-giroko auzua zanian be, nortasun haundixa eukan eta **etziran makalak izaten hango jaixak San Lorentzotan**. Herri-kasko klasikotik hain hurrian egonda, eta agustuan jentia etzala artian kanpora faten kontuan izanik, **normala zan horko erromerixak sekulako tiria eukittia txantxikuaron artian**.

Horregatik, orduko San Lorentzuak ikaragarri estimaitten zittuain herrittarrak. **Bi eguneko programia** egoten zan: santuaren egunekua, agustuaren 10ian, eta bixamunekua. **Trafiko gutxi** eguen urtietan, kamiño kontran egitten ziran erromerixak, eta gehiketari **hasi zanian**, barrurago jarten euen musika-kioskua, **Olako errota-torriaren eta Mugartzaneko zerriaren artian**. **Soiñujoliak** Osintxuko **Azkarreta anaiak** izan ziran urte dezentetan, baiña gerora beste musiko asko ezaguttu gittuan fiesta horreitan. Goitik behera eta ezkerretik eskumara horra gazte larrañatarron izen-abizenak:

Goiko illaran zutik: X. X., Olako Matio Kortabarriaren morroia; Juan Mari Guridi Zumalde, *Uriko Azpikua*; Nikolas Zubia Markuleta, *Olako errotakua*; Jose Mari Iñurritegi Urtzelai, *Olako Karlosena*; [X.] Zabaleta, Urruxolako *Olatekua*, Olako Matio-nian morroi; Jexus Guridi Zumalde, *Uriko Azpikua*; Joxe Luis Plazaola Goronaeta, *Mendiko kalekua*, Irazabal Haundikuan morroi; Patxi Bikuña Altube, *Erbiña* baserrikua; Kandido Zubia Markuleta, *Olako errotakua*; atzeratxuago, Pedro Elkoroiribe Zabaleta, *San Lorentzo* baserrikua; Justo Igartua Elortza, *Elordui Goikua*; honen atzian, Jexus Markuleta Azurmendi, *Aramai-xuena*; eta atzerago orainddiok, Anjel Anduaga Zelaia, *Azkoitixena*; aurrerago Benito Agirre Olalde, *Errekalde* baserrikua; Benitoren ostian txapelarekin Joxe Bikuña Ugarte, *Erbiña* baserrikua; gero Kornelio Markuleta Azurmendi, *Aramai-xuena*; Pedro Aias-tui Bikuña, *Joxiuen*; goiko bazterrian eskuman, Bixente Markuleta Markuleta, *Danbolingua*; Pedro Aiaituiren aurrekua, Eduardo Urtzelai Aiaitu, *Uriko Garaikua*; eta honen ondokua, X. X.

Behian jarritta: Joxe Mari Idigoras Guridi, *Antonena*; Joxe Elkoroiribe Zabaleta, *San Lorentzo* baserrikua; Nikolas Altube Moiu, *Alejona*; Felix Aldanondo Elkorobarrutia, *Zeziñena*; honen atzian, Julian Aiaitu Bikuña, *Joxiuen*; Eduardo Zubiagirre Uriarte, *Pullangua*; soiñujolia izan barik soiñuarekin, Julian Iartza Egaña, *Torretxebarrikua*; honen atzian, Iñazio Guridi Zumalde, *Uriko Azpikua*; hurrengua be etzan musikua baiña saxofoiarekin, Pedro Ugarte, *Kortakua*, morroi Leibarren; horren ondun goratxuago, Emilio Anduaga Markuleta, *Auzotxoko Xokeruena*, Korta baserrixan morroi; eta honen atzian, Pedro Agirre Azkarreta, *Lekunbarri* auzokua, baiña Erbiña Bestekuan bizi zana.

Argazkixa Patxi Elortza erretratista oñatiarrak 1944-1945 inguruan ataratakua ei da, eta atzian ikusten diran baserrixak 1970ko hamarkada aldian bota ziran San Lorentzo auzua egitteko.

J. E.

Fotografia Erbiñeko Bikuña anaiak eukain eta guri Joseba Iartzaren bittartez aillegau xaku. Argibiderik gehixenak, berriz, Joxe, Jexus eta Reyes Bikuña anaiak zor dostegu. Milla esker danoiri!